

# DEBA

## Emen gera gu ere

Gaur egunean sarritan entzuten degun esana da: «Oraingo gaztediak zer nai duan ere ez daki».

Nere iritziz gaurko gazteak ba-ditugu gure kezka eta zerbait egin naiak; gure ardura ez da lo gaudelako ezta zer nai degun ez dakigulako ere. Eta gure ardurak agertzen ez baditugu ez da gure errua oso-osoa. Gaurko gizarte-giroa ez da biziro egoki ta laguntzallea; zio asko dira errudun gure gain ez daudenak, ta sarri askotan geldi-egotera edo barruan daramagun nai-eza azaltzera beartzen gaituzte, baña nai-ez orren zergatia azaldu gabe.

Deba'ko gazteditik ezer askoren itxaropena euki leike; agirian dago bere igitu-nai eta zerbaiten ekiteko gogoa. Zertatik asi?

Ez beintzat ezer zailla danetik. Esan oi da bakoitza bere lurrean loratu bear dala. Jaungoikoak landaratu duan lurrean. Gu, Euskalerrian sortu gaitu. Euskalerrian loratu bear geranak gera. Gure loratzea litzake euskera berbiztea. Erdi illian dagon gure euskera sendatzen alegintzea, bete-betean gure eskuan dago. Zer gauza ederragorik gaztedia euskera-aldez alegintzen asiko ba-giñake baño? Ez da auxe gauza zailla. Gure eskuan dagona. Ikork eragotziko ez diguna. Batzutan badirudi euskeldunak gerala, aiztuta bizi gerala ere. Ta zer gauza ederra litzaken beti-beti geure artean erabilliko ba gendu!

Gauz pozgarria da gure euskel ikastolak dagiten lana. Ikusi egin bear da gure emakumeen lana. Baña guzia alper-alperrikakoa izango da umetxo oiei etxean euzkeraz itz-egiten ez ba-zaiote. Biar edo etzi guraso izango gera. Eta orain bertatik neska ta mutill, elkarrekin eta bakoitza bere aldetik euskera erabiltzen leiatzen ez ba-gera, geuk zapalduko degu gure etxeetan ikastolan erein duten azia ta ortik sortu diran landaren ederra. Au gogoan euki bear degun gauza da, ta au gertatu ez dedin ezer baño len arretaz artu bear degun erabakia: euskera, euskera, ta euskera.

MUTIL GAZTE BAT



Euskalerriko alderdi bikain au, zeñek ez du ezagutzen? Gure Kentauri onek baditu itxas-ondartza ederrak. Ona emen Deba'koa. (Foto Allica).

HOTEL MONREAL
JOSE EGAÑA ERAÑA
Restauranta eta kalletxea.
Erriko jaietan gure agurra!
DEBA (Gipuzkoa)
Urrutizkiñak 601244 - 601245

BURU - ZURI
Jetetxe ta kafetxe ezaguna.
Arratsaldeko jaki onenak-Noiz-nairako mokau goxoak.
Lertsundi kalea, 27 — Urrutizk.ª 601026
DEBA (Gipuzkoa)

Dolores Urain
Jaki ta edari denda, aukera aundiarekin. Nai bezelako igaliak denda ontan arkituko dituzu. Erriko erbesteko guziei, gure ongi-etorria pesta abetan!
Lertsundi kalea, 19 — Urrutizkiña 601030
DEBA (Gipuzkoa)

LABATAI
Kafe-etxea, gosariak, askariak, mokauak.
Geldoki aurrean.
Etxe onek bere bezero guziei jai alaiak opa dizkie.
Urrutizk.ª 601227 — DEBA (Gipuzkoa)

ARAKISTAIN ARATEGIA
Aragi ta estekietan berdiñik ez duan etxea.
Erriko jaietan ondo jan nai ba-dezu, eldu etxe ontara.
Lertsundi 35 — Urrutizk.ª 601026
DEBA (Gipuzkoa)

## EGAKA TA IGESKA

Jose ZORRILLA'RENA

Deba'k bertara sartzean
ludi bazter bat diruri
aundiki ikurratza duan
antxin-antxiñako idazti.

Zugasti bat du, zubia,
portutxo bat ete ibaia,
ta bere gizon zolien
ospe aintza ta zoramen
dauka, pelota-tokia.

Ibiltokiak aurrean
itxasoa beroausle
arrantza txalopak zigan
ta bañu-zaleak ere.

Aundikiak biltzen dira
an, udaldia igarotzen
dakitelako dirala
aserre gabe lasaitzen.

Ikastol ondo ornituak,
prantzez erara bizi da,
bere gauzetan ardura,
ta ondo bat-jo kontuak.

An, aberatsak ez du
beeratzen danik uste
udan kanpotarrak artu
ta eratzen bada ere,
ba naikoa asti ta diru
abek n ondatzen dute
abek an ondatzen dute.

Eta ni bai, igeska noa,
ezin oarpenik egin,
itxas arroak narama
odoldia bezin arin,
baña az naiz ni, nuana,
kondesiak nakar onuntz,
ta ez det eman bear uts
nun zer ikus-banezake,
ta egan artu dedana
egan edestu nai nuke.

Bere eleiza, oroigallu
eta igeki bakana da,
bizanziotar gotiku,
ondope zabala eta
euspen sendoa ditu.

Atarte itzala, trinkoa,
ate-aurre gelgarria,
noiz egiña dan aiztua
eta aiztua egillia.

Bere ate-uztrria
ariandu zoragarria,
irudi-lan erdokia
daukan utsarte ta antz-bizia
aunditik txikira josia.

Iru salletan barrua
burni-eziz itxitako
txaunoak aldamenetan
zintzoak ordaindutake
argi-mutillak oietan
korua goi-ariñean
eskudela biribilkiz,
zebiltzan, egin zanean
zearka ta gogo gutxiz.

Goi-gaña zerura igeska
pillare ausartu gañetan
erti ederra gañezka
aldare ertitsuetan
ba ertilari zan beste
zan egillea Jaun-zale.

Eun margoztua illunean,
kalostrara irtetean
zer patixua ikus-dedan!

iñun aren antzekorik
katedral ez kartujarik
Lauki ustai-zorrotza
ez da izango gauz erraza.

Bere txulaketak dira
guztiz itxura berriko
ez da ikusten Deba'n baño
alako arku ta arranbel
emen nintzake ni gel-gel,
egun bat baño geiago,
ta ez ba'nintz ain laisterka
atsegiñez ikusteko
eliza, patixua ta
barruko burni-saretza.
ba lan gelgarriak dira,
baña kanpoan ere ala
ikusgarriak geiago
guazen... nola leike izan!
ur onetsia, ta joan.

Euskeratzalle: TENE

Oarra: Olerki au 1880'ko urtean olenkariak Kondesa de Guaqui ikustera etorri zanekoa da).

PATXI AIZPURUA (OLABE)
Garajea
Guzitarako lanak egiten ditu
Automobilletzako gordelekua
«Sandroke» jai onak opa dizkiegu ezagun guziei.
Urrutizkiña 601221 — DEBA (Gipuzkoa)

ALEJO
Elektro-etxerakoak, eskeingarrietan, aukera
Ontzi ta ferreteria —Burnigailluak—
Ongi etorriak zaitezte gure errira!
DEBA (Gipuzkoa)